


BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure bazkide garrantzitsuenak hornitzaileak dira, haiengan menpekotasun handiena dugulako.

Produktuaren karkasa egiteko 3D makina bat erosi dugu, eta horretarako materiala Direct Industry enpresari erosi diogu. Haiengan menpekotasuna dugu, karkasa egiten ez badugu ezin dugulako produktua ekoizten bukatu. Dooit enpresari erosten dizkiogu 3D makina erabiltzeko behar dugun materiala.

Direct
INDUSTRY



Bigarren hornitzaileak garrantzitsuena produktuaren mekanismoaren atalak ekartzen dituena da. Biltron SARI erosten dizkiogu osagarri elektronikoak. Enpresa honekin aliantza estrategiko bat sortu dugu, haiek gabe ezin dugulako ezer ekoiztu. Haiei buruzko publizitatea egiten dugu, gure web orrian bai triptikoan, haiekin kolaborazioan gaudela esanez, haiek hornitzen baitzizkigute produktua egiteko oinarrizko osagaiak. Haien hobebeharrez egiten dugu publizitate hau, horrela, guretzat haien ekoizpenaren portzentai finko bat ekoizten dute.

Biltron

Inprimagailu funtziorako tinta ere erosi behar dugu, nahiz eta enpresa hazterakoan guk ekoizteko intentzioa izan. Horretarako, Tinta y Papel Bizkaia enpresari erosten dizkiogu tinta-kartutxoak. Azpimarragailua kargatzeko ez dugu guk kablea sortzen, General Cable (Delegación Norte) enpresari erosten dizkiogu kargadoreak, guk adostutako motakoak.



 **General Cable**

Gure makinak garbiak mantendu behar ditugu, eta gure instalazioak baita ere. Beraz, haiek garbiak mantentzeko, Grupo TESCO enpresarekin jarri gara kontaktuan, eta astean behin haien zerbitzua jasotzea adostu dugu.



Bestetik, gure produktua garraiatzen duen enpresa bat kontratatu dugu, fabrikatik bezeroarengana eramaten duena. Enpresa Transporte Feradetrans SI da, eta haiekin egun bat adosten dugu haiek etortzeko eta bezeroei produktua eramateko.

